

## Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




<b>aise</b> 'erraz'	«...gizakiak bertan trumilka bizitzeagatik Txema <b>aise</b> irentsiko zuen New York, Bombay edo Mexikora.»	17
<b>altzo</b> 'magala, sabel alde'	«Turismo-bulegoko eskaileretan jarrita zegoen, ordenagailua <b>altzoan</b> eta begiak ilargi betea baino biribilago.»	80
<b>amarru</b> 'azpikeria, maltzurkeria'	«...pisua erosi eta Tereren ama limurtu (batek daki zelako <b>amarruak</b> eta hitz ederrak erabili zituen horretarako)...»	102
<b>amorfo</b> 'ganorabakoa, zentzugabea'	«Arratsaldeetako ordu <b>amorfoei</b> itxura konkretuei ematen zieten bien artean.»	100
<b>anabasa</b> 'nahaste-borrastea, nahaspila'	«...kirolak eta abarrak ere hitzezko <b>anabasa</b> hartan galduko ziren modu berean.»	42
<b>arestian</b> 'lehenago, duela gutxi, oraintsu'	«Eta <b>arestian</b> kontatutako anekdota horretan, eta beste guztietan ere, bere irribarra erdi zabalik geratzen den ate baten antzekoa da.»	74
<b>arramaka</b> 'orroka, alarauka'	«...eta nire aterpetxeko jendea (nirekin parrandan irten zena) oihuka eta <b>arramaka</b> .»	131
<b>artean</b> 'orduan, oraindik (irag.)'	«...nahiz eta Txema, <b>artean</b> , gertatzen ari zenaz konturatu ere ez zen egiten.»	18
<b>astazakil</b> 'astapotroa, basapiztia'	«Ninfomaniatik beherako ezer ez zaie kabitzen <b>astazakil</b> horiei...»	75
<b>atabiko</b> 'zaharra'	«Kontsolatu zen pentsatuaz beharbada instintu <b>atabikoren</b> bat izango ote zen...»	25
<b>atur</b> 'mozkorra, legatza'	«Bai. Aupa ba. Aupa. Eta, zer, <b>aturra</b> ? Ez. Jode. Eta zuk?»	63
<b>barrabaseko</b> 'deabruzkoa'	«Rocíoaren aurpegian ilusio beteko begitarrek keinu <b>barrabaseko</b> ahoarekin konpartitzen dute bere hizarioa...»	74
<b>barren</b> barrez (Baieztapena indartzeko hitza)	«Ez dizkizu begiak gainetik kentzen, <b>barren!</b> »	16
<b>begitandu</b> 'iruditu'	«...nire aurreko maila bakoitza etorkizun eta errealitate altuago batera eramango ninduen bidea <b>begitandu</b> zaidala...»	44
<b>behingoz</b> 'azkenerako!'	«Amak ezkerreko leihotik begiratzen zuen, herriari azken bistadizoa eman guran-edo; baina guri bost axola herriak: <b>behingoz</b> trenean ginen...»	36
<b>behinik behin</b> 'behintzat, bederen'	«...ondo zebilen, askatasuna gurpilpean sentitzeko moduan bai <b>behinik behin</b> .»	128
<b>berbarako</b> 'esaterako, kasurako'	«...gaur, <b>berbarako</b> , amildegi baten ertzetik paseatzen genbiltzan, eta bat-batean txilio deigarri batzuk entzun ditugu.»	183
<b>berbetan</b> 'hizketan, eleketan, solasean'	«Esana zion Jabiri, eta honek ulertu ziur aski, baina Txema zen <b>berbetan</b> jo eta dale ibiltzeko beharra zuena.»	15
<b>berri-lapiko</b> 'nonzebarria, hitzontzia'	«...arratsaldero entzuten zituen bere amaren eta auzoko andre <b>berri-lapikoen</b> kafetegiko txutxu-mutxuak.»	123
<b>biharamun</b> 'ostea, ajea (mozkor ostekoa)'	«Gaur, berriz, sekulako <b>biharamunarekin</b> , aterpetxeak antolatutako minibus batek (...) eraman gaitu...»	105
<b>bistadizo</b> 'begiratua'	«Amak ezkerreko leihotik begiratzen zuen, herriari azken <b>bistadizoa</b> eman guran-edo; baina guri bost axola herriak: behingoz trenean ginen...»	36
<b>bits</b> 'aparra'	«...gero zuhaitzak eta ur-lasterretako <b>bitsa</b> ; eta hodeiren bat oparituko ote zidan beldurrez negoen...»	51
<b>denero</b> 'den bakoitzean'	«...edo sikatearen erruz herria agerian geratzen <b>denero</b> , etxe honetara etortzen naiz...»	94
<b>dingilizka</b> 'eskegita, zintzilik'	«...eternitatea zer zen ikasi genuen jarleketan jesarririk eta hankak <b>dingilizka</b> genituela.»	36
<b>dizdizari</b> 'distiratsua, ñir-ñir egiten duena'	«Txemarekin ibiltzen hasi eta urte bat edo bira izango zen, bai, eta hark ere begi <b>dizdizariak</b> zituen.»	75



<b>doako</b> 'dohainik, debalde'	«Autostopak, ordea, hori dauka: <b>doakoa</b> dela eta turistek lortzen ez duten hurbiltasuna eskaintzen duela.»	97
<b>eder askoa</b> 'eder-ederra, oso ederra	«Hondartza luzea, golf zelai zabalak eta txalet <b>eder askoak</b> deskubritu zituen bertan...»	149
<b>eldarnio</b> 'sukar-zorabioa, haluzionazioa'	«...alkohol tantaz bustitzen (...) neskaren ezpainak, eta bi droga gogor iruditu zitzaizkion horiek Txemari: alkohola eta amodioa. <b>Eldarnioa</b> , hitz batean.»	137
<b>erkin</b> 'ahula, argala'	«Euskal literatura gaur baino <b>erkinagoa</b> zen garaietan, eleberriak eskatzen ziren...»	11
<b>erronka</b> 'desafioa, eupada'	«...H ordua iristean behar bezala ekiteko nesken <b>erronkari</b> .»	63
<b>erru ziztririk</b> 'erru apurrik'	«Eta hala ere kontrolatu egin behar, batez ere ume haiek <b>erru ziztririk</b> ez zutelako.»	115
<b>eskarmentu</b> 'esperientzia'	«...galdetu didanean berak beste <b>eskarmentu</b> izan nahi nukeela konturatu naiz, hori bai.»	77
<b>ezagutze aldera</b> 'ezagutzearen'	«...sartu dira talde horretan, eta elkar <b>ezagutze aldera</b> pentsatu dute egun batzuk batera pasatzea.»	131
<b>ezpada</b> 'baizik eta, ezpadaze'	«...baina horrek ez zuela Txemaren eguneroko tristura lausotuko, <b>ezpada</b> alderantziz...»	15
<b>gaeliko</b> 'hizkuntza zeltikoa, irlandera'	«Bidean aurrera eginez, <b>gaelikoa</b> entzun dut nire bizitzan lehenengoz, izenik gogoratzen ez dudana herri batean.»	129
<b>galapaka</b> 'trostan, taupadaka'	«Bihotza <b>galapaka</b> hasi zitzaion, tripetatik ahorraino hedatutako bero batekin batera.»	27
<b>garunbako</b> 'txoriburua, burua hutsik duena'	«Ziurrenik ilusioa, nerabe <b>garunbako</b> batek bere gelako nesken koadernoak atzeko orrialdeetatik zabaltzen dituen bezalaxe...»	137
<b>gehiago ez ekin</b> 'ez jarraitu, ez tematu'	«...eta nahiago izan dut <b>gehiago ez ekitea</b> .»	114
<b>gibel</b> 'atzean, ostein'	«Atea bere <b>giblean</b> ixten ari zela ikusi zuen azkenengoz Maite, oraindik adi...»	25
<b>gomuta</b> 'oroitzapena'	«... <b>gomuta</b> izpi bat ekartzen zioten oheak, hitzak, eskaparateak...»	17
<b>hagitzez</b> 'askoz'	«...bizitza guztirako Eiderren itzal madarikatuaren pean ibiltzea baino <b>hagitzez</b> errazagoa.»	160
<b>harilkatu</b> 'haria bildu, astalkatu'	«...argazkiek kontatzen zioten ordenatu gabeko historia pixkanaka <b>harilkatuz</b> .»	26
<b>herabe</b> 'lotsatia'	«...bere bihotzeko taupaden errudunari, agur iheskorrak, <b>herabeak</b> .»	63
<b>hitz eta pitz</b> 'berba eta berba'	«Gidaria <b>hitz eta pitz</b> ari zitzaidan, eta akademiako garaietatik geratzen zaidan ingeles apurrarekin erantzuten nion...»	69
<b>hurrupatuta</b> 'xurgatuta'	«...eta askoz ere urrunago, abuztuko beroak eta ortuen egarriak <b>hurrupatuta</b> , urtegiko lau tantak.»	92
<b>iaio</b> 'trebea, abila'	«Franco katxaloteak harrapatzen bezain <b>iaioa</b> zen urtegiak inauguratzen...»	93
<b>isiltasun mutu</b> 'erabateko isiltasuna'	«Eta Txemak <b>isiltasunik mutueneko</b> elkarrizketa nahi zuen.»	98
<b>itzel</b> 'ikaragarria (kristorena)'	«Pena euriarena, baina bestela <b>itzela</b> izan da.»	114
<b>jo eta dale</b> 'etengabe, lotu barik'	«Esana zion Jabiri, eta honek ulertu ziur aski, baina Txema zen berbetan <b>jo eta dale</b> ibiltzeko beharra zuena.»	15
<b>kanpai jotzea</b> 'masturbatzea (mutilak)'	«...ohera sartu aurretik Eider gau batez ordezkatzeko zorian egon zitekeen ilehori horren omenezko <b>kanpai jotzearekin</b> .»	16



<b>kargu hartu</b> 'kontuak eskatu'	«Baina, hala ere, ezin zion inori <b>kargu hartu</b> (...) neskalagun izandakoa kanposantuko G12 kalean zegoen hilda...»	116
<b>karkara</b> 'barre algará'	«Clay, Fergus eta Legg iraindua <b>karkara</b> bizian hasi ziren, barreka eta eztulka...»	154
<b>kilkir</b> 'kilkerra, txirri-txirria'	«...edo bazkaritik soberan geratu diren ortuariez elikatzen dugun <b>kilkir</b> bat.»	145
<b>koitadu</b> 'gaixoa, gizajoa'	«Agian kontsolagarri izango zaizu jakitea ez dudala pitorik gogoratzen, zeruko zein izar ote den horrela baliatu nuena. Izar <b>koitadua</b> .»	138
<b>laga</b> 'utzi'	«...memoria bizkarrean daramazun karga bat baino ez da, eta bidean <b>laga</b> behar duzu ezinbestean.»	31
<b>lagun portatu</b> 'adiskide baten moduan jokatu'	«Ez zidaten txarto begiratu, edo iraindu, edo proposamen arrarorik egin. Ez: <b>lagun portatu</b> ziren.»	174
<b>lakar</b> 'laztasuna'	«...eztulka hasi baitzen, eta hegoekin sama babesten. Gau osoa eman zuen eztarriko <b>lakarra</b> kendu nahian, koj-koj-koj moduko zaratatxoekin.»	238
<b>langar</b> ziri-miria moduko euria,	«...leihatilaren bestaldetik ihesi baitzihoazkion Eiderrek urtebete lehenago ikusitako paisaiak, eta <b>langarraren</b> tantak zelai (...) esmeraldetan...»	99
<b>lar</b> 'oso-oso, gehiegi'	«...beraz ez zen <b>lar</b> arriskugarria testu horiek irakurtzeko.»	30
<b>lartxo</b> 'gehiegitxo'	«...baina Ralphen irudia Jabirengan ikustea <b>lartxo</b> da.»	216
<b>lausotu</b> 'difuminatu, gandutu, lanbrotu'	«...baina horrek ez zuela Txemaren eguneroko tristura <b>lausotuko</b> , ezpada alderantziz...»	15
<b>legetxe</b> 'bezalaxe, modu-moduan'	«Edo esploradoreak hildako zibilizazio baten aztarnak aurkitzen dituen <b>legetxe</b> .»	137
<b>legez</b> 'bezala'	«Baina gauetik egunera <b>legez</b> aldatu zitzaion izaera.»	23
<b>letania</b> 'zerrenda'	«...errepikatzen zuen ahots ezezagun haren <b>letaniak</b> .»	167
<b>likatsu</b> 'lirdingatsua, mukiz bustia'	«Emakumeak gehiago atzeratu zituen belaunak, sustraietatik agertu behar zuen umeak bidea libreago izan zezan buru <b>likatsua</b> ateratzean.»	123
<b>likits</b> 'itsaskorra, nazkagarria, lohia'	«...behin eta berriz igurtzi zuen aho-sabai partean iragan gaueko alkoholaz estalirik segitzen zuen trapu <b>likits</b> hura.»	15
<b>limurtu</b> 'konbentzitu'	«...pisua erosi eta Tereren ama <b>limurtu</b> (batek daki zelako amarruak eta hitz ederrak erabili zituen horretarako)...»	102
<b>liskar</b> 'istilua	«Gutxienez Maitek hasitako <b>liskarrean</b> burua hotz mantentzeko balio izan zion.»	24
<b>lizunduta</b> 'usteltzen hasia bezala,	«Azala <b>lizunduta</b> duen liburu bat erreskatatu du eta eskuarekin kolpe batzuk eman dizkio.»	179
<b>maiseatu</b> 'gaizki esaka aritu, kritikatu'	«...bere esku zegoen guztiak Eider iraintzea, kritikatzeta, kalumniatzea, manipulatzeta, <b>maiseatzeta</b> .»	204
<b>malkar</b> 'aldapa harritsu, troka'	« <b>Malkar</b> itzelaren ertzean zegoen arren, Txemak arnasa hartu zuen...»	160
<b>mami</b> 'muina, (okela) gogorra'	«Akaso izango zuen nahiko <b>mami</b> beste ezertan pentsatu beharrik ez izateko.»	199
<b>mauka</b> 'aukera bikaina (txolloa)'	«Itzelezko <b>mauka</b> da, beraz, atzerrian edo mozkorrean jendea ezagutzea.»	130
<b>mikatz</b> 'mingotsa, zapore desatsegina'	«Ohartu zenerako gelako giroa arnastu ezina egin zitzaion, eta <b>mikatzagoa</b> mingaina, aho-sabaiaren inguruan bueltaka.»	17
<b>ñabardura</b> 'xehetasuna'	«...horma horien atzean gordetzen den <b>ñabarduren</b> mundua deuseztatzea...»	18



<b>orbaindu</b> 'zauri itxi'	«Txemari ez ote zaion zauria <b>orbainduko</b> , edo niri ez ote zaidan itxiko...»	113
<b>pitorik ez</b> 'ezertxo ere ez, batere ez'	«Agian kontsolagarri izango zaizu jakitea ez dudala <b>pitorik</b> gogoratzten, zeruko zein izar ote den horrela baliatu nuena. Izar koitadua.»	138
<b>pittinka-pittinka</b> 'apurka-apurka'	« <b>Pittinka-pittinka</b> gure harreman hura hasierako komenientziazatik urruntzen hasi zen...»	49
<b>potxingo</b> 'bideko ur putzutxoa'	«...horretarako kosta ahala kosta sartu behar zuelako txilibitua Irlandako edozein <b>potxingotan</b> .»	227
<b>sama</b> 'eztarria, iduna'	«Lehengo batean eztulka hasi baitzen, eta hegoekin <b>sama</b> babesten. Gau osoa eman zuen eztarriko lakarra kendu nahian, koj-koj-koj moduko zaratatxoekin.»	238
<b>sargori</b> 'bero sapa, bero itogarria'	«...zeren beti izango baitzuen tokitxo bat Txemaren buruan, <b>sargori</b> , beti sargori...»	160
<b>supituan</b> 'bat-batean, kolpean'	«Baina dena dela, <b>supituan</b> isildu nintzen egongela hartara sartu eta...»	93
<b>tripak gurru eta gurru</b> 'etrdipuakki orroaka eduki'	«Azkenean mokadua labur geratu zait eta, arrasti osoan zehar <b>tripak gurru eta gurru</b> eduki ondoren...»	45
<b>trumilka</b> 'samaldan, tropelean, piloan'	«...gizakiak bertan <b>trumilka</b> bizitzeagatik Txema aise irentsiko zuen New York, Bombay edo Mexikora.»	17
<b>txango</b> 'bidaiatxoa, laburra eta ez urrun'	«Helburu horrekin, <b>txangoak</b> antolatzen dituzte, xake txapelketak, futbola, igeriketa...»	131
<b>txilibitu</b> 'zakiltxoa'	«...horretarako kosta ahala kosta sartu behar zuelako <b>txilibitua</b> Irlandako edozein potxingotan.»	227
<b>txin-txinka</b> 'topa egiten'	«...garagardo botila brindis baterako gonbita zela ulertu zuen Txemak eta, berak ere berea altxatuz, <b>txin-txinka</b> hasi zen inguruko beste lagun guztiekin.»	40
<b>txingor</b> 'inetasia, kazkabarra'	«Azkenean, uztak hondatu zizkiguten elurte, uholde, haize eta <b>txingorrei</b> esker, amak eskutik hartu gintuen...»	35
<b>txintxilariodun jenero</b> 'gizonezkoak, arrak' (zerbait	«...gizonen artean mozkortzeko beldurrik ez duena, eta <b>txintxilariodun jenero</b> hori osatzen dutenen artean arrakasta sortzeko moduko itxura duena.»	133
<b>txirikordatu</b> 'trentzatu'	«...nire hatzak bere ikatzezko hariak <b>txirikordatzen</b> hasi diren une berean.»	107
<b>txoropito</b> 'txoriburua, leloa, pepelerdoa'	«...dudarik gabe jakingo zuen gazte <b>txoropito</b> baten eskutik irteerako hitzak zirela promesaz eta eternitateaz betetako izkribu haiek.»	27
<b>txutxu-mutxu</b> 'ahapeka hitz egin, marmarka'	«...haurren jolasak, <b>txutxu-mutxuak</b> , inbidia, ganaduaren ibilerak, jaiak...»	92
<b>uzkur</b> 'mesfidati, hurbildu gabe'	«Mesfidati aritu da, <b>uzkur</b> . Ez du atea zeharkatu...»	182
<b>xeratsua</b> 'lartzanezkoa, ferekazkoa'	«Eta gero mingain <b>xeratsua</b> , ahosabaia...»	108
<b>xira</b> 'euritarako jantzia, zira'	«...praka laburrak eta panazkoak, <b>xira</b> eta eguzkitako krema, alkandora eta forru polarra.»	39
<b>zein baino zein</b> 'nor baino nor, irmo'	«Berriz galdetu behar izan diot, beraz. <b>Zein baino zein</b> .»	73
<b>zin degizut</b> 'agintzen dizut'	«Eta <b>zin degizut</b> , Bitakora fidela, mugarik gabeko handitasun horretan txiki sentitzeko prest nagoela...»	51
<b>ziplo</b> 'ustekabea, brausta'	«Zeren, noski, udalekutik etxera bueltatu eta <b>ziplo</b> bota bainion dena...»	113
<b>zirrara</b> 'hunkipena, emozioa, inpresioa'	«...(eta gutxiago hitz horiek sortuko zioten ohiko <b>zirrara</b> ) inorekin konpartitzeko.»	150
<b>zohikatz</b> 'turba, ikatz mota'	«...itsasoa usaindu daiteke eta nonahi daude <b>zohikatz</b> a ateratzeko zuloak.»	105